

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko irailak 11, 161. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzaz



**NARAYANA  
GATTU**  
Indiatik  
kooperatibetatik  
ikastera

# Zaldibar, behea jota?

AKADEMIA

# BASTIDA


INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Ferrerias, 44  
Arrasate  
Tel.: 79 32 16

**1992-93 IKASTARO EGITARUA**

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREIZGARRIAK  
Baita ere, Ingenieritza Teknikoa:  
Fisika, Termodinamika.
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA  
EUSKARAZ

**Urriaren 2an  
sekula baino  
jantzi  
dotoreagoaz  
kaleratuko  
gara!**



# ARRASATE PRESS

## ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

### Maketazioa:

Goio Arana

### Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

### Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

### Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendiguren.

### Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitakoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# S.O.S.

**T**xiki txikitán ikasi nuen, nere aitona Joserén aholkuz eta eskutik, Natura begirunez tratatzen, errespetatzen eta gozatzen. Jainkoaren dohaina zen berarentzat Natura.

Pertsona letxe, mimoz tratatu behar zen bizi-iturri eta bizi-bide zen Natura eta... "bere esanetara" giza aktibitatea eratu. Gizona ez bait zen Naturaren nagusia, zaindari eta gordetzaille baizik. Jainkoa zen nagusi bakarra.

Garai hartako nekazariak errez jotzen zuen Jainkoagana eta zerurantz. Bere eta Naturaren sorkari izanez Jainkoa, den-dena Jainkoaren gogoangarri, adierazle eta sakramentu, bihurtzen bait zitzaion.

Gaurko gizontxo "jakintsuak" berriz...

Dirua eta errazkeria egin ditugu geure sasi-jainko eta geure burua beste jainkorik ez dugu aitortzen. Natura dominatzeko tresneriaz eta aurrerapenez baliatu gara, eta gure harrokerian bururik gabe, bihotz gabe, erabili dugu Natura eta izorratu. Eta... orain kontuak!

Ekologiaren turutak jo ditugu (berandu?) munduaren lau ertzetan eta indartsu jo ere: *salba dezagun natura. Munduko jaun andreok, erne! zütik!*

Baina desnaturalizatzen eta galtzen ari diren espezieen artean, benetan kezkatzen nauen espeziea gizakia da. Bere bereizitasuna eta nortasuna gal zorian dagoela deritzot.

Hirizoologikoan ondo mantendua, komoditate ugariekin, ongi sentitzen da giza-espeziea. Gustora dirudi. Baina zeren truke?

Bere barne misterioa itzalirik, neurri-gabeko kontsumokerian eroria, atsegin errazak errez eskuratuz, espirituaz ahazturik, noiz arte pertsona?


Hirizoologikoa, gizarte itxura izanik ere, zoologiko engainakorra da. Eta zoologikoak ez dira pertsonentzat, abere "domestikatuentzat" baizik.

Gizakiak, beste izakiek letxe, bere giza-ekosistema berezia du, baina so! Bere ekosisteman, biologiar dagozkienez gain, beste hainbat dohain bere-bereak eta funtsezkoak ditu: bizitza eta barne misterioa, askatasuna, espiritua, maitasuna, Jainkoa... Horiek galdu edo desorekatuz gero, giza-espeziea galdu da. Gehien, bere desarrolloa abortatu duen aberea geldituko da. Eboluzioaren adar berezi eta puntako hau ihartu egingo da.

S.O.S.

JOSE MARI ASTIGARRAGA.  
"SAGARRAGA"

Memesa  
79 42 22



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**


Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak  
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


## ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65



## ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

## ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

## Otsoak eta Gran Casinoa (Hainbat langileren historia laburra)

Jesus Lobo Aleu UCEM Korporazioko Lehendakaria da. Korporazio hori, duela lau urte sortu zen, Arrasateko Unión Cerrajerako negozio zaharren irabaziak erabiliz, Eusko Jaurlearitzaren lehen Gobernualdian, Industri Kontseilariordea izan zena, enpresari askoren eredu bilakatu da. Azken lau urteotan 4.405 milioi PTako irabaziak izan ditu, bere akziodunei %10eko dibidenduak baino handiagoak banatu dizkie eta kapitalak bikoiztu egin ditu, 4.149 milioitik 9.640ra heldu delarik, eta beste enpresa batzuetan dituen finantz partaidetzak 5 aldiz handitu, 1.782 milioitik (88an) 8.945era helduz (91an).


Hauei herria eta bere langileak bost axola zaizkie. Gaur egungo Otsoak hotzak eta teknokratak dira eta "negozioaren mauka" aprobetxatzen dute. Euskal Herrian edota Estremaduran inbertitu eta desinbertitzen dute, kasinoetan jokatzeko den arintasun berarekin. Horiek, diru erraza eta bizkorra egitea bilatzen dute, eta, horrexegatik nahiago dute Donostiako Kursaal Kasinoa erosi edo sektore inmobiliarioan inbertitu; hori errazago zaie Cerrajerako industri eta metalurgi tradizioari eustea baino.

Hauekin oraingoz beti galdu egiten dugunak, langileok gara. Guri, besterik gabe, UCEM Korporazioak gure lanpostuen geroa garantizatzen zuela esan ziguten. Gure Unión Cerrajera zaharra hainbat negoziotan banatu zuten, gehien balio zuten aktiboak saldu egin zituzten, eta diru hori Negozioaren Maukaren Gran

Casino delakoan jokatu zuten. Orain esaten digutenez, fabrikatzen ditugun laminatuak ez dira errentagarriak eta ez dute irtenbiderik; beste horrenbeste esaten digute gurpilei buruz eta RENFEk, trenbiderako gure torlojuak ez omen ditu erosten dagoeneko. Horrelakoak esanez, gaur sekzio bat eta bihar beste bat ixten dizkigute eta, jakina, gero eta langile gehiago soberan. Azkenean, Otsoek UCEM SA transformatu Metalikoen fabrika itxiko digute. Arrasateko lantegia urrearen prezioan salduko dute eta kapitalak Gran Casinon jokatu ditzute.

Amaiera tristea! Otsoak geldiarazten baditugu, ordea, ez da hain tristea izango, agian.

ARRASATEKO CC.00



## MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

# Zer dakizu Maastricht-i buruz?



**Igor Santiago**  
(Ikaslea)

Ez dakit, ez dut ideiarik ere. Entzun ere ez dut egin.




**Montse Gallastegi**  
(Etxekoandrea)

Susmoa badaukat baina zer den ez dakit. Entzun egin dut baina gehiago ez.




**Ainhoa Arregi**  
(Ikaslea)

Entzun egin dut, baina ez dakit gauza handirik. Tratatua eta batasuna lortzeko dela esaten dute, baina egia esan, nahiz eta egunkariak irakurri ez dute esaten zer den.



**Jabier Abalde**  
(Topografoa)

Bai, asko entzun dut eta ba dut nere eritzi pertsonala. Akordioaren kontra nago, estatuen Europak suposatzen duenagatik, gizartearen berdintasuna, barne aberastasuna eta pentsamendua bera ere ez duelako erraztuko.



**Aitor Antxia Leturia**  
(Langilea)

Komunikabideek zabaldu dutena bakarrik entzun dut. Baina hainbeste gauza desberdin esaten da, oraindik ez dut eritzi pertsonalik.



**Pedro Arizmendiarieta**  
(Langilea)

Zerbait bai, baina oso gutxi, izena entzun dut baina oso gutxi dakit.



**Parques  
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ**



*Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)*

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

|   |          |
|---|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit. ....         | 79 53 00 |
| Igualatoria .....                       | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... | 79 39 00 |
| (emakumeak) .....                       | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua .....          | 79 90 11 |

**GURUTZE GORRIA**

|               |          |
|---------------|----------|
| Bergara ..... | 76 55 76 |
|---------------|----------|

**DYA**

|                |          |
|----------------|----------|
| Antzuola ..... | 76 62 91 |
|----------------|----------|

**ANBULATORIOAK**

|                             |                |
|-----------------------------|----------------|
| Arrasate (Larnaldiak) ..... | 79 13 57       |
| (Txanda hartzeko) .....     | 77 03 46       |
|                             | 77 07 21       |
| Oñati .....                 | 78 08 52       |
| Eskoriatza .....            | 79 98 58       |
| Aretxabaleta .....          | 79 74 58       |
| Aramaio .....               | (945) 45 51 16 |

**ANBULANTZIAK**

|                              |          |
|------------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulantiak ..... | 45 87 44 |
|------------------------------|----------|

**UDALTZAINGOA**

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Oñati .....        | 78 04 11 |
| Bergara .....      | 76 14 69 |
| Arrasate .....     | 79 14 39 |
| Aretxabaleta ..... | 79 10 52 |
| Eskoriatza .....   | 79 03 22 |

**ERTZAINZA**

|                |          |
|----------------|----------|
| Arrasate ..... | 79 71 99 |
|----------------|----------|

**SUHILTZAILEAK**

|                                      |          |
|--------------------------------------|----------|
| Udal taldea .....                    | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua ..... | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea .....    | 78 28 00 |

**MATXURAK**

|                                  |              |
|----------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) .....      | 79 09 00     |
| Elektrizitatea (iberduero) ..... | 79 05 81     |
| Gasa .....                       | 900 40 05 23 |
|                                  | 79 78 44     |
|                                  | 79 76 78     |

**GARRAIOAK**

|               |          |
|---------------|----------|
| Taxiak .....  | 79 12 22 |
| P.E.S.A. .... | 79 14 19 |

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK**


|                                 |          |
|---------------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza .....          | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza ..... | 79 81 57 |

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA**

|  |          |
|--|----------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... | 79 87 77 |
| KIUB-OMIC .....  | 79 51 55 |

**MONTEARRONGO LIBURUTEGIA**

|                 |          |
|-----------------|----------|
| Monterron ..... | 77 01 05 |
|-----------------|----------|



**11**

• • •

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Un lugar llamado Paraiso" (7-9.30).
- Igandean Arantzazura joateko prestatzeko, talde-otoitza, Parrokian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaez: Camacho, Bergara.

**12**

• • •

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "La mano que mece la cuna" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaez: Estella, Bergara.



**Saskibaloia**

• • •

- Emakumezko Arrasate Saskibaloia eta Gasteiz taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 4.30etan.
- Gizonezko Arrasate Saskibaloia eta Loiola Easo taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 6.15etan.

**Futbola**

• • •

- Mondra eta Erandio taldeen arteko partidua, Atxabalpen, igandean arratsaldeko 5etan.

**13**

• • •

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "La mano que mece la cuna" (5-7.30-10)
- Arantzazura Erromesaldia, oinezkoak goizeko 5.30etan Kontzeziño kaletik eta autobusak Garibai geltokitik goizeko 8.30etan.
- Jubilatuen etxeetan egindako eskulanen erakusketaren azken eguna, Monterronen.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaez: Estella, Bergara.

**14**

• • •

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "La mano que mece la cuna" (7-9.30)

**15**

• • •

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "La mano que mece la cuna" (7-9.30)
- Odolemteak anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaez: Camacho, Bergara.

**16**

• • •

**ASTEAZKENA**

- Odolemteak anbulategian, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

**17**

• • •

**OSTEGUNA**

- Zaldibarko Futbito Txapelketarako izen-ematea, Monterronen arratsaldeko 7etatik 8etara.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

## Lehiaketak

### • Barazki, fruitu eta loreak

Bihar larunbata, Deba Garaia eta Beheko eskualdeko barazki, fruitu, lore eta gazten lehiaketa ospatuko da. Etxeko barazkiekin hartu izango da parte. Gazta lehiaketan, 800 gramo izan beharko ditu gutxienez aurkeztutako gaztak eta sariak 30.000, 20.000, 15.000, 12.000 eta 8.000 pezetakoa izango dira. Loreen lehiaketan bi modalitate bereiztuko dira: "Lore moztuak" eta "Etxeko andreentzako lore lehiaketa". Lehenean norberako lortutako loreak eta bigarrean loropote-takoak aurkeztuko dira. Guztietan Epaimahaiaren erabakia jaso ondoren hasiko dira salmentak, 10.30etan gutxigora-behera.

### • Argazki lehiaketa

Udaleko Gazte Zerbitzuak, Belaunaldi Gaztearen III garren Argazki Lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea urriaren 2an amaitzen da eta argazki munduko pertsona adituek osatuko dute epaimahaia. Urriaren 9an ezagutaraziko dira lehiaketaren irabazleak. Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa egitea ere espero da. Irabazleak 60.000 pezeta eskuratuko du eta 40.000 eta 30.000 pezeta beste sarituek.

## Ikastaroak

### • Piraguismoa eta zaldian ibiltzea

Udaleko Gazte Zerbitzuak bi ikastaro desberdin antolatu ditu. Batetik, zaldian ibiltzeko eta bestetik piraguismo ikastaroa. Biak Urduluz izango dira, irailaren 14tik 25era, hau da, astelehenik ostiralera. Zaldian ibiltzen ikasteko, 5.000 PTAkoa izango da matrikula eta pira-



## Juan Ramon Arana memoriale

### Futbola izango da protagonista nagusi

Juan Ramon Arana Almeneko irakasle eta marianista zen, bihotzekoaz hil zena. Bere heriotzaren ondoren, komisio bat sortu zen kirol eta kulturako ekintza desberdinak aurrera eramateko eta horren ondorioz urtero ekitaldi desberdinak antolatzen dira Almenen. Atzo hasi ziren ekintzak, futbolari buruzko mahainguruarekin. Gaur futbol partidu desberdinak jokatuko dira, Almen eta Errealaren arteko partidua 5etan eta Araba eta Bilboko Athletiaren artekoa 6.30etan. Partidu hauen finalak igandean jokatuko dira, 4.30etan eta 6etan.


Horretaz gain, ikastola denak hasten diren bezain laster, lehiaketa desberdinak izango dira, idazlan eta marrazki lehiaketak batez ere. Guztiak bailara mailakoak izango dira.

Urtero kirol desberdin bat aukeratuko da, berari buruzko hitzaldiak, erakusketak, idazlan eta marrazki lehiaketak, ikastola barruko txapelketak eta abar egiteko. Aurten futbola aukeratu dute esan bezala, eta datorren urtean eskubaloia- ren inguruan izango dira ekitaldi gehienak.

guismokoa 2.000 PTA. Txanda desberdinak jakiteko deitu telefono honetara: 77 00 65.

### • Kontsumo masterra

Bergarako UNEDek Kontsumoko masterra antolatu du. Lizentziatu, diplomatu eta kon-



tsumo profesioanalei zuzenduta eta bi ikasturte izango ditu guztira; lehena 1992.eko urrian hasiko da. Ostiral eta larunbatean izango dira klaseak, ostira-lean arratsaldeko 5etatik 10etara eta larunbatean goizeko 9etatik 2etara. Masterraren prezioa 500.000 pezetakoa da, 250.000 ikasturte bakoitzeko. Ikasle kopurua mugatua izango da, 40koa. Aurreinskripzioa irailaren 1etik 20ra egin daiteke eta matrikulaketa urriaren 1etik 20ra bitartean. Informazio gehiago lortzeko UNEDera zuzendu edo telefono hauetara deitu: 76 29 93 edo 76 29 62.

## Jaiak

### • Rock kontzertua Elorrioren

Gaur eta bihar rock kontzertuak izango dira Elorrioko Ate-neo Arriola kafean. Gaur Herio-tza taldea izango da bertan eta bihar pop-rock kontzertua izango da, AEKk antolatuta. Era berean bihar, toki berean, gaueko 10etan Steven Spielberg-en "Hook, El capitán garfio" deituriko pelikula botako da.

### • Bertso jaialdia

Gaur gaueko 10.30etan Bergarako Mariaren Lagundia Ikastetxean bertso jaialdia izango da. Antolatzailerak Jardun elkarteak da. Eraña, Sarasua, Peñagarikano, Olaso, Mendizabal, Murua, Euskitze eta Lizaso, Finaleko zortziak izango dira kantari.

## Deialdiak

### • Pastoralerako sarrerak

Nahiz eta AED, Udala eta Maritxu Kajoi Batzordekoek, Zuberoako Santa Grazi herriak eskeini duen Santa Krutz Pastoralera Arrasatera ekartzea nahi, Ordizian izango da bihar, larunbata, arratsaldeko 5etan eta sarrerak Monte tabernan daude salgai.

## Jaiak

### • Kurtzebarri eguna

Igandean ospatuko da Kurtzebarriko eguna. Goizeko 9etan izango da irteera Aretxabale-tako Partenoitik. 11.30etan meza izango da eta ondoren salda, txanpana eta abar izango dira Kurtzebarriko puntan. Jaiari amaiera, soinu-joleak eta txalaparta emango zaio. Irteera egun guztirako izango da.

“Gasteizko Axular, Arrasateko Hire edo Bilboko Verdes-en sartzen bazara, promesaz jositako mundu oso bat irekitzen zaizula ikusiko duzu, Proust-en parrafo luzearekin bakarrik egin beharko duzu borrokan, Dickens-en mugarik gabeko zorionetik defendatu edo Stendhal-ekindeslunbramentutik babestu. Eta sekula gehiago ez zara bakarrik egongo”.

(Antton Perez de Callejak El Mundo egunkarian)


“Merkatua hazten ez bada, eta negozio berririk sortzen ez bada, gerta daiteke langileak soberan egotea ere. Guk ahalegin guztiak egingo ditugu eraginkortasuna handitu dadin, gure katalogo eta eskaintzak hobekatu izan daitezten. Korporazioak ekarriko duen gauza bat merkaturako kuota hazkunderako aukera izango da, eta baita barne produkzioa ere eta horrekin absorbitu ahal izango dugu langilegoa”.

(Jabier Mongelosek El Mundo egunkarian)

“Kooperatibetako absentismo tasak beste enpresa batzuetakoak baino baxuagoak dira, baina bere produkzio baliapideen jabe den kolektibo baten-gandik espero zitekeena baino handiagoak. Dirua irabazteaz ez ezik, nola ez galdu pentsatzeaz ere arduratu behar genuke. Absentismo laborala milioi asko kostatzen da. (...) Kooperatibisten artean sarrien ikusten diren gaixotasunak, hipertentsio arteriala eta artrosia dira estadistika ofizialen arabera. Kontsultako 23 urteko esperientziak esaten didanez, berriz, desilusia eta pasotismoa”.

(Eukeni Olabarrietak uztaileko TU-Lankide aldizkarian)

Zergatik lanpostuen murrizketa Udal Euskaltegian?



Aurtengo urtera arte, Udalak sortutako eskari guztiei eman die erantzuna, inolako muga barik. Izena ematen zuten ikasleek arabera, hainbeste irakasle kontratatzen ziren.

Zer gertatzen da? bada iazko ikasturtean nahiko nahaste handiak izan zirela irakasleentzako kontu horrekin eta ordukako irakasleak, lan hobekia aurkitzean alde egiten zuten. Ondorioz, urtean zehar irakasle asko kontratatu behar izan genituen. Gauzak horrela, aurtengo ikasturteari begira, irakasleei finkotasuna ematea erabaki zuen Udalak eta hortik murrizketa, Euskaltegiari horren berri eman, eta egun osorako hamabost irakaslez osatutako plantila jarri dugu: 9 finkoak eta 6 hiru urteko kontratuaz.

Ez dakit HABEK erabaki honi buruz duen eritzia, Udalak hartutakoa izan da eta. Aurrera begira, eta jende askok izena ematen badu euskarako klaseak hartzeko ez dakit ziur zer egingo genukeen, berriro bildu beharko ginatke, baina gure ustez, talde handiren bat etorriko balitzaigu, seguruen irakasle gehiago eskatuko genituzke. Gure asmoa jendea ahal den neurrian erantzutea da, behintzat, ahal dena egingo genuke jendeak euskara ikas dezan.

JUAN JOSE URIARTE "BERMI", UDAL EUSKARA BATZORDEBURUA.

ESTETIKA ZENTRUA  
Zarraoa  
lurrundegia, opariak, jostailuak  
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

Monte taberna  
Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

EGVZKiGRAF  
Grafikagintza. Tipografia. Offset industrial  
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala




## Oñati

### • Alde Zaharraren berregokitzea

Diputatuen Kontseilu Orokorrak Alde Zaharra berregokitzeko proiektua onartu du. Alde Zaharraren kontserbazioa eta berreskuraketa dira helburu nagusiak. Etxe eta eraikuntza zaharrak eraberritzeko beharrezkoak diren kermanismoak kontutan izango dira eta era berean, Diputazioak ere izango du parte finantziatuan. Konkretuki, %50a Diputazioaren dirulaguntzarekin ordainduko da. 1990. urtean hasi zen prozesua, hurrengo egunetan izango den bilera-ekin bukatuko da.

### • Atzeko Kaleko jaiak

Asteburu honetan Atzeko kaleko jaiak ospatuko dira. Gaurko gaua *Hator* taldeak alaituko du 11etatik aurrera. Bihar goizeko 11etan beste urte batzutan bezala, egotzara bisita egingo da. 1etan salda izango da eta Urrintxon bolo txapelketa. *Eguzki* taldeak azkenik, egun horretako jaiak agurtuko du. Igandean ospakizunak jarraituko dira.



## Aretxabaleta

### Maria Worth eta Aretxabaletaren arteko harremana

Datorren asteazkenean Maria Worth-eko ordezkari talde bat Aretxabaletan izango da. Orain dela urte batzuk Aretxabaleta eta Austriako Maria Worth herrien arteko anaitzea egin zen. Ortutik izan dira beste bisita batzuk baina oraingoak Eusko Jaurlaritza eta Karintiako gobernuaren arteko erlazioan du bere zentzua. Zortzi ordezkari etorriko dira Austriatik: lehendakaria, gobernuko bost sailburu eta alkatea. Anaitze horren helburuak bi dira: ekonomikoa eta kulturala. Karintia edo Kartern, Austriako lurralde autonomo bat da, eki-hegoaldean kokaturik dagoena. Hiriburua Klagenfurt da eta Wortheseen lakuaren inguruan Maria Worth dago.

Egitarauaren arabera, asteazkeneko 10.45etan Gazteizko aireportuan harrera egingo zaie eta 12etan Aretxabaletako Udaletxean. 13.30etan Industrialde berriaren inaugurazioa eta arratsaldeko 5etan Maria Worth pasealekuaren inaugurazioa izango dira. Arratsaldean folklore saioa izan ondoren, 8etan afora egingo da eta azkenik gaueko 11etan agurra egongo zaie. Ostegunean Gazteizen izango dira, Jaurlaritzako arduradunarekin lan saioan.

## Eskoriatza

### • Iparraldera bidaia

Eskoriatzako Amuska emakume taldeak Iparralderako bidaia antolatu du. Udaletxea eta Diputazioaren laguntza izan dute. Bidaia irailaren 19an egingo da eta interesatuta dauden guztiak, Kultur Etxetik pasa beharko dira.

### • Pilota Txapelketa


Kontzejupe txapelketak izan duen arrakasta ikusi ondoren, Zarautzatarra tabernako arduradunek eskuzko pilota txapelketa antolatu dute. Hortan interesatuta dauden guztiak tabernan bertan eman dezakete izena irailaren 13a baino lehen, 500 pezeta ordainduz.



## IKASTAROAK

PELUCERIA ETA ESTETIKA

F. P. 1 Titulu Ofiziala



General Mola Plaza, 4 -3.  
GASTEIZ Tfnoa: 23 33 99

## IKASTAROAK

KIROMASAJA, KIROL MASAJA  
RFLEDOTERAPIA

F. P. 1 Titulu Ofiziala



General Mola  
Plaza, 4 -3.

GASTEIZ Tfnoa: 23 33 99

## IKASTAROAK

OSASUN, PSIKIATRIA eta  
FARMAZIA LAGUNTZAILEA  
PUERIKULTURA



F. P. 1 Titulu  
Ofiziala

GASTEIZ Tfnoa: 23 33 99

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE  
PRESS



77 05 65

**□ Ondasun Higiezin  
gaineko zerga**

Arrasateko Udalak, ondasun higiezin gaineko zerga ordaintzeko epea zabaldu dela adierazi nahi du. Borondatezko epea irailaren 20ra arte egongo da zabalik eta exekuziozko epea azaroaren 20tik aurrera, % 20 gainkar-guaz. Beste urte batzutan egin dutenei Banketxetik kobratuko zaie, bestela etxean jasoko dute ordainketa egiteko behar den agiria.

**□ Matrikulaldia euskaltegietan**

Udal Euskaltegian hilaren 16a arte eta AEK Erdi euskaltegian hilaren 25a arte irekita dago, euskara ikasi nahi dutenentzat matrikula. Kasu bietan, maila guztiak eta ordutegi desberdineko klaseen eskaintza dago.

**□ Jesusi Etxeberriaren  
Musika Eskola**

Iraila bukatu arte, Jesusi Etxeberriaren Musika Eskolan matrikulatzeko epea zabalik dago. Solfeo, Abesbatzetako kantua, Akordeoia, Kitarra, Txistua edo Armonia ikasi nahi dutenak eguneko edozcin ordutan pasa daitezke eskola bertatik. Horretaz gain, joan den asteko ARRASATE PRESSEN Jesusi Etxeberriak, beste zenbait gauzen artean, solfeo desagertuko dela esan zuen arren, aditzera eman digu solfeo ez dela desagertuko, baina bai izenez aldatu, *hizkera musikala* izenez ezagutuko da eta.

**ONGIETORRIA JAIOSBERRIEI**

*Oihana Pildain Etxaniz*, irailaren 3an.  
*Andoni Montiel Merchan*, 5ean.  
*Adrian Beloki Abasolo*, 5ean.

**ZORIONAK EZKONBERRIEI**

*J. L. Hernandez Indurain & M<sup>a</sup> Clarisa Beltran de Gebara*. Irailaren 2an. Zibilez.  
*Ricardo Valentin Iturbe Salsamendi & Miren Lorea Madinabeitia Aranguren*. Irailaren 5ean. Elizaz.

# Txandaka

## LAN-MUNDUAN ERE EUSKARAZ!

**A**ED Elkarteko Euskalan taldeak, Arrasate Pressek eskeinitako txoko honetan, euskaltegietako matrikula epea zabalik dagoela aprobetxatuz, hasi berri duen sentsibilizazio kanpainaren mezua eta ardatzak azaldu nahi dizkizu.

Kanpaina honen bidez euskara ez dakitenak

ikastera eta dakitenak bere euskara lantzerantz bultzatu nahi ditugu. Ez dakitenak euskararen mundura sartzera gonbidatzen ditugu, euskarak beren beharra duelako eta, aldi berean, euskara beraina ere badelako eta, gero eta gehiago, bere premia dutelako. Euskara dakitenei, lan-munduan ere euskararantz joateko, mezu zein proposamen zuzenak luzatzen dizkiegu: dakienarekin hitz egitea, dakiten euskara lantzea, ikasten ari denari edo kolokan dagoenari laguntzea eta ez dakiena ikastera bultzatzea. Jarrera hauek hartzea nahitaezkoa da lan-munduan euskararen presentzia handituz joan dadin.

Kanpaina honek ahalik eta praktikoa izan nahi du. Lantegi edo zerbitzu bakoitzean dagoen sentsibilitatea eta dugun indarra edo eraginaren arabera proposamen zehatzak egingo dira. Honekin batera, kanpaina hau aprobetxatuz, lan-munduan euskararekiko sentsibilizatuta dagoen jendea



Josu Belar (\*)

martxan jarri nahi dugu. Lan-munduan "ralenting-an" dauden motorrak azkartu egin nahi ditugu, lantoki bakoitzean euskararekin arduratuko den talde iraunkor eta eraginkorrek sortuz edo gorpuztuz.

Arrasaten, giza-sektore eta esparru askotan espazioa irabazten ari da euskara eta lan-mundua

ezin da inolaz ere atzean geratu eta, honetan saiatzen ari da Euskalan taldea eta, aurrerantzean, dinamika bizkorta eta eraginean irabazteko zutabeak finkatzen ari da.

Artikulu hau irakurtzen ari zareten askok, agian, adierazten eta proposatzen dugun guzti hau oso zaila edo utopia hutsa dela pentsatuko duzue. Euskalaneko partaideok ere ondo dakigu gizarte konpetitibo honetan enpresen helburua irautea eta errentagarri izatea dela, gure helburuak lortzea ez dela erreza eta denbora gutxian egitekoa, baina, aldiberean, aipatu beharra dugu gaur egun hainbat arlotan euskarak aurreratutakoa, duela oso denbora gutxi ameskeria hutsa zela.

Herri honen etorkizunean sinesten dugulako ari gara lanean. Euskararen normalizazioan denok beharrezko garelako, lan-munduko partaide guztioi jarrera jator eta aktiboa eskatzen dizuegu. Orain dugu aukera.

(\*) EUSKALAN (AED)KO PARTAIDEA

Zurgin Kantoi, 2      Tfnoa: 79 20 04      ARRASATE

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak

**NAROKI**  
Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia  
Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Eskola publikoetan 700 ikasle daude eta pribatuetan 2.272

## Beherakada txikia matrikuletan

*Eskolaurrean eta OHOn, guztira 2972 ume.*

Iazko eta aurtengo ikasturteetako matrikulaldiei begirada bat emanez gero, ezin daiteke esan nobedade handiak egon direnik, kasu gehienetan beherantzako joera txikitxo bat soma daitekeela, besterik ez. Salbuespenak bi dira, eta garrantzi handi gabekoak gainera: San Frantzisko Xabier Ikastolako Eskolaurrean iaz baino 6 ume gehiagok eman dutela izena eta Umezaintzan 4 gehiagok. Umezaintzari dagokionez, aipagarria da aurten lehenengoz seasakako umeak jaso dituztela bertan, bederatzitik guztira.

Kuadroko datuak orokorrean hartuz gero, Eskolaurrea eta OHOn artean Arrasateko ikastetxeetan, Eskolaurrea eta OHOn datuak kontuan hartuta, 2.972 neska-mutiko dabilzala ikus daiteke, 700 ikastetxe publikoetan eta 2.272 pribatuetan. Ikasle gehien dituen ikastetxea San Frantzisko Xabier Ikas-

tola litzateke, 1.083 ikaslerekin eta gutxienean, berriz, Musakola, 165 ikaslerekin.

| Ikastetxea | Eskolaurrea |        | OHO |        |
|------------|-------------|--------|-----|--------|
|            | Iaz         | Aurten | Iaz | Aurten |
| Erguin     | 70          | 65     | 241 | 235    |
| Musakola   | 22          | 20     | 173 | 145    |
| S. Andres  | 49          | 45     | 184 | 170    |
| La Merced  | 95          | 85     | 436 | 415    |
| S. F. X.   | 301         | 307    | 819 | 776    |
| Umezaintza | 201         | 205    | —   | —      |
| S. Viator  | 44          | 38     | 701 | 691    |

Azkenik, aipagarria da kuadroan ez dela maila ertainetako daturik agertzen eta ezta Eskola Politeknikorik ere, izan ere maila horretarako eta Eskola Politeknikoko injinerutza ikasketetako matrikula-epea aste honetan bertan bukatzen da.

## Usteak uste

**H**irugarren urtez izan behar genuen gure artean zubero-tarren antzinako antzerkia, baina Santaengraziarrek taularatu duten Santakruz pastoralak ez du Monterroneko sekuoiarik ikusiko.

Eurek jakingo dute hegoaldeko emanaldi bakarra Ordizian egitea erabakitzeke erabili dituzten arrazoiak zeintzu diren, baina seguru nago ez zutela Arrasatek eskaini ziezaikeen azpiegitura ezagutzen. Ez ditut lerro hauek aprobetxatuko bertara ez etortzearren pastoral hau edo santaengraziarrak arbuizatzeko; aitzitik, txalotzekoa deritzot A.E.Dren jokamoldeari, izan ere, bailaran kultur ekimen honen, eta beste askoren, zabalkunde eta bultzadaz arduratu bait da.

Baina bestalde Arrasaten — Santakruz ikusi dutenen eritziz Monterronean eman diren aurreko bi pastoralak, Abadia Urrustoi eta Harizpe, besteko kaliterik ez omen dauka —, bi urtetako esperientziaz baliatuz eskaini geniezaiokeen zabalkundea, bertako medioak eta hemengo taldeen inplikazioa erabiliz, arrakastaren oinarri izango genuke.

Aramaiora balihoa arrasatearrok samurrago ulertuko genukeela iruditzen zait; neri behintzat ez litzaidake garbatuko.

JON GARAI

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK  
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

**Unibertsitatera autobusak?**

Aurreko urteetan bezala Udaleko Gazte Zerbitzuak koordinaturik, Donostia eta Bilboko unibertsitatera, eguneroko autobusak antolatzeko gestioak egiten ari dira. Orain arte apuntatu den ikasle kopuru txikia dela eta, oraindik ezin daiteke ziurtatu autobusak izango diren ala ez. Interesatuta zaudeten guztioi dei bat egin nahi zaizue, izena eman eta konpromezu hori hartzeko. Arrasate, Bergara eta inguruko herrietako ikasleek eman dezakete izena.


**Arantzazura erromesaldia**

Datorren igandean, hilak 13, Arrasatek Arantzazura erromesaldia egingo da urtero bezala. Autobusez joan nahi dutenek, goizeko 8.30etan irtengo dira Garibaitik eta 9etan, kotxez joan direnekin bilduko dira Gesaltzan. Arantzazuko elizan 10etan sartuko dira eta meza 11etan ospatuko da. Etorrera eguerdiko 1etan eta arratsaldeko 7.30etan izango da.

**Ur eta zabor tasa**

Hila bukatu arte, herritarrak hiru hiletetako ur eta zabor-tasak ordaintzeko aukera izango dute, borondatezko epean. Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak, %20ko gaitzarekin kobratuko dira.

Bestalde, gogoratu azaroaren 20a arte irekita dagoela borondatez Ondasun Higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea.



Monterronen egin zen kanpainaren helburuen aurkezpena.

## Lanean ere euskararantz!

### Euskalanek bultzaturiko kanpaina

Pasa den asteazkenean Monterronen izandako prentsaurrekoan, AEDko Euskalan, Arrasateko bi euskaltegi-tako arduradunak, eta Udala eta herriko hainbat erakunde talde eta enpresaren artean sinatutako hitzarmenaren teknikariak, enpresetan burutu nahi den euskarazko kanpaina aurkeztu zuten. Enpresa munduan euskararen presentzia handiagotzeko helburuaz, mezu zehatzekin sensibilizazio kanpaina bideratu nahi da.

Horretaz gain, kanpaina hau pertsonalizatu egin nahi da, hau da, atera berri diren diptikoak banatu eta sortu dai-

tezkeen komentarioak batu nahi dira. Era berean, eta euskalduntzea lortzeko AEKren eta Udal euskaltegiaren laguntza eta kooperazioa izango dute. Nahi Abasoloren hitzetan, "Guk baditugu euren orduen barruan euskara ikastera etortzen diren langileak. Orain dela hiru urte hasi ziren etortzen eta gaur egun askoz gehiago dira, gehituz joan da kopurua".

Euskaltegi-tako matrikula garaian egingo den kanpaina honen zehaztasunaz gain, Euskalanek finkatu dituen gainerako helburu eta lehentasunak zehaztu ziren.

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

**E · S · T · U · D · I · O**

**I N T E R I O R I S M O A**

- Dekorazio proiektuak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren eraberrikuntza
- Gremioetako ekipo osoa
- Diseinu orokorra

Garibai, 3 bis  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 01 44

**PUB  
HAIZEA**

arrasate



Egun hauetan Gaztetxea itxita dago obratan dabiltzalako.

## Gaztetxea arautu nahiean

### *Bizilagunen kejak beste bilera bat eragin dute*

Gaztetxearen inguruan bizi diren bizilagunek jarri dituzten kejak direla eta, Udalak neurriak hartzea erabaki du. Egun batzu barru egingo den bilera baten arau hauek konkretatzea espero da. Bertan Udaleko eta Gaztetxeako ordezkariak izango dira. Udaletik Alkatea eta Gazteriako zinegotzia izango dira Gaztetxeako neska-mutilekin bilduko direnak.

Bete beharko diren arauak zarata eta ordutegiari buruzkoak izango dira, eta antzeko beste lokalek bete behar izaten dituzten arauak betetzea esijituko zaie. Udal korporazioak lehenbailehen egin

nahi du aipaturiko bilera. Era berean, arauak konkretatu ondoren, Gaztetxean zehatz mehatz bete beharko dituztela ere adierazi du Udalak.

Gogora dezagun Gurea zinean zegoen Gaztetxea ere arrazoi berberagatik itxi zela.

Ospitale zaharreko lokalean Gaztetxea zabaldu baino lehen Udalak beste zenbait gauzatarako erabiltzen zuen. Baina gaur egun ere izaten dira kontzertuak, antzerkia, hitzaldiak, etab...

Gaztetxean, bestalde, obra batzuk egiten ari dira eta, hurrengo bilera horretan azalduko da horien berri.

### EKIk mozioa aurkeztu

EKI ekologista taldeak, Deba ibaiaren kutsadura dela eta mozio bat aurkeztu du Arrasateko Udalan, hurrengo Udal osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin. EKIkoez diotenez, erreken kutsadura ekiditzeko ez omen da ezer egiten eta ondo egongo litzatekeela oraingo Udalaren agintaldia bukatu aurretik, Deba ibai eta bertara ura isurtzen duten errekatxoak bizirik daudela egiaztatzea. Horretarako EKIk Udalari, 1980. urtean Deba ibaiaren bitzta berreskuratzeko egin zen plana bultzatzea eskatzen dio, eta errekar botatzen diren zikinen kontrola eramateko, zikintzaileak zigortuz eta herritarrei horren berri emanez.

### Uribarri-Erguingo jaiak

Gaur hasi eta igandera arte, Uribarri-Erguingo jaiak burutuko dira eta horretarako ekintza eskaintza zabala. Jaie hasiera emateko, gaur arratsaldeko 6etan kalejira txistulariekin eta etxafleru jaurtiketa, 7etan txikiteoa Tximeleta-rekin eta meza Al-Andalus taldearekin eta gauean dantzaldia Gaubela taldearekin. Larunbateko aipagarriena, berriz, goizeko 11.30etan lasterketa probak, arratsaldean mus txapelketa eta gauean Itziar eta Maixa trikitilarien emanaldia. Igandean, jaien amaiera: eguerdiko 12.30etan herri kirolak eta bertsolariak Arimazurin eta 7etatik 10etara Ibaiak taldearen dantzaldia toki berean; gero azken txupinazoa.



**DAMKART**  
Estetika eta Ileapaintzaile  
Eskola  
M.E.C.-ek homologatua  
Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05


hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

**BURGALES JATETXEA**

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABAETA



Pasa den asteazkenean

### Umezaintzako umeek hasi zuten

**ikasurtea.** Lehenengoko momentuan gurasoak ere eurekin izan ziren, apur bat ohitu arte. Hasi ez ziren bakarrak seaskakoak izan ziren. 4 hilabetetik aurrerakoak aurten izango dira lehen aldiz Umezaintzan.



**Iraileko Udalekutxoak** pasa den astelehenean hasi ziren, umen negar, barre eta oihuen artean. Hori bai, argazkia ateratzeko ordurako gehienak sosegatu ziren eta ohizko "Patata, patata, patata..."ri ekin zioten. Hura eskandalua!

Orain arte igeri egin nahi zuten gutxitu fisikoek kiroldegiko piznara joateko oztopo ugari bazituzten ere, poliki poliki gauzak badoaz moldatuz eta bideak erraztu zaizkie. Aldagela eta dutxa egokituei, orain **uretara sartzeko igogailua** gaineratu behar zaie eta laster batean, barruko piznara joateko egingo den ranpla. Ah! igogailuaren funtzionamendua erakusteko, bainujantzia hartu eta ur hotzetara salto egin zuena, **Pablo Gallastegi** da, kiroldegiko mantenimenduko langilea.

Araba Etor., 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32



Koop. E.

Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00

## 92-93 IKASTURTEA

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Matrikula irekita  
Hurbil zaitetz gure bulegoetara.

Arrasaten 9etatik 1etara  
4 etatik 8etara

Oñatin 4etatik 8etara

  
**AMETS  
TAILERRAK**

HERGO karabanen banatzailea

**TXAKURRAK ERAMATEKO  
ERREMOLKEAK**



Berezano auzoa. OÑATI  
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

Izen  
**PROPIOAK**



**INDONESIA**

Baliem Valley, Irian Jaya (New Guinea)—A spear-wielding Dani warrior set for tribal battle

**POSTAL  
LEHIAKETA**

Mordoa izan dira ARRASATE PRESSEN egun hauetan jaso ditugun postalak. Gertutik, erdibidetik edo urrutitik, asko izan dira gutaz akordatu diren arrasatearrak, eta oporretako unetxo bat gure postal-lehiaketan parte hartzeko aprobe txatu dutenak. Aurrez iragarri genuen moduan, afariar saritu dugu jatorren iruditut zaigun postalak...: Indonesiatik **Blanka Etxebarriak** eta bere lagunak bidali zigutena. Zorionak ba eta eskerrikasko!

Nagusiek bezala, umek ere hartu dute parte aurten lehenengoz antolatut dugun postal-lehiaketan. Afaririk ez, baina **Haritz Inurra-tegik** bidali digun txarri-txoaren postalak izango du sariren bat. Zatoz sariaren bila.

Helabete batean  
dena ikusi nahirik  
alioa hartuta  
opa Euskaditik.  
Hemenyo "morantok"  
beti gure atzetik  
Besarkada bere bat  
Indonesia aldeetik

Blanka  
Etxebarria  
ARRASATE



ARRASATE - GIPUZKOA - EUSKA  
20500  
(SPAIN - EUROPE)



● **Bego Zubia**, 26 urte, arrasatearra, Egin egunkariko Gizarte Saileko buru izendatu dute. Begok kazetaritza ikasi zuen Leioako fakultatean, ARRASATE PRESSEN lan egin zuen, eta azken bi urteotan Egin-eko Debaldean aritu da lanean.

● **Ana Ugalde**, 35 urte, Hezibideko pedagogi-koordinatzaile izendatu berri dute. Magisteritza ikasi eta historian lizenziatua da. San Frantzisko Xabierren 13 urte egin ditu eta Batxiler Orokorreko irakaslea izan da bi urtez Eskolan.

● **Txaro Iraeta**, 40 urte, izango da Almeneko zuzendaria berria. Aurretik ere 6 urtez azpi zuzendari eta beste 6 urtez zuzendari izandakoa da eta beste hiru urtez Hezibideko pedagogi-koordinatzailea izan da.

● **Jesus Mari Plazaola**, 35 urteko Udalarra eta bere **Mendi** txakurra lehen-go postuan geratu ziren pasa den igandean Ezkion egindako ardi txakurren txapelketan.

**DUO DISEÑO**

- OBRAK
- BARRUAK
- BULEGO-ALTZARIAK
- PROIEKTUAK
- OSAGARRIAK

Iturriotz, 21  
Tfnoak: 79 28 86 / 77 14 94  
ARRASATE

**ERAKUSKETAREN  
ALDAKETA  
DELA ETA,  
PREZIO BEREZIAK  
IRAILETIK AURRERA.**



Aste honetan bi senar-emazte ditugu zilarrezko eztaiak ospatu dituztenak, azteazkenean biak. Alde batetik **Jesus Telleria** eta **Pilar Elortzak** eta bestetik **Ana Mari Amiang** eta **Xabier Zubizarreta** (eskumako argazkian). Lehenak Gatzagan ezkondu ziren. Besteak Arrazolan eta argazkia egun horretan eginikoa da. Zorionak eta ea hurrengo ere ospatzen dugun!



**Josu Herrarte**, 27 urte, modragoetarra da izatez, baina Burgosen bizi da azken 17 urteotan. Hil honen amaieran Kroaziara joango da beste lagun batzuekin hango errefuxiatu kanpamenduetan dauden umeekin lan egitera. Handik bueltan kontatuko digu ikusitakoaren berri. Ondo ibili! ▶




**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**ABDON JUARISTI  
PINTURA  
KLASEAK**

Tfnoa: 76 47 98 (12-2)

Hasiara: irailak 30

Espaloia, 16  
BERGARA



**N**arayana Gattu  
Excel Industries  
Limited enpre-  
sako zuzendaria  
da, Indiako

Bombay hirian kokatuta dagoen enpresakoa. Madri-  
len "Giza baliabideen  
gestioa" izenburupean  
burutu zen kongresura etorri  
eta Arrasateko kooperatiben  
esperientzia ezagutzeko  
aprobetxatzea pentsatu  
zuen Narayanak.

— Zeintzuk dira Indiak  
gaur egun dituen arazo latze-  
nak?


— Nire ustez arazorik  
handiena, era berean irtenbi-  
de bihur daitekeena, Indian  
bizi den jende kopurua da.  
Herri eta hiri txikiak biz-  
tanle asko hiri handietara  
joaten da lan bila eta hor oso  
mugimendu handiak sortzen  
dira. Horren aurrean, herri  
eta hiri txikiak lana sortu  
beharra dago, jendeak jai-  
territik aldegin beharrik izan  
ez dezan. Azkenik, gure  
mugetatik kanpo dagoen  
merkatuari begiratu gero,  
oso merkatu zabala ikusten  
da eta merkatu horri erantzun  
beharrean gaude, baina gure  
produktuen kalitatea eta fi-  
dagarrtasuna ondo landu eta  
gero. Horretarako hezkuntza  
eta formazio mailan aurrera-  
pauzuak ematea ezinbestekoa  
zaigu.

— Eta zelakoa da Indiako  
gizartea?

— Historia eta iragan  
ederra dugu, baina orainare-  
kin zerbait egin behar dugu  
etorkizun hobea izateko. In-  
dustria mailan esan behar da  
hinduok gaitasun psikiko  
handia dugula, baina lana  
egiteko era hobetu behar  
dugu. Guk badakigu, elkar-  
lanean ihardunez gero, ale-  
maniar edo amerikarrekin  
konpetitzeko gai izan gai-  
tezkela.

Narayana Gattu

## Indiatik kooperatibetatik ikastera



Hinduak, izatez baikorak  
gara eta espiritualki lasaiak.

— Kastak?

— Hor dagoen arazoa da,  
baina gero eta diferentzia  
txikiagoak daude gure artean.  
Gure enpresan ez dago ino-  
lako diferentziarik, herri txi-  
kietan, ordea, gauzak lehen  
moduan daude. Hango  
enpresen eta hemengoan ar-  
tean ez dago diferentziarik,  
gure helburua, hemengoena  
bezala, ahalik eta produktu  
onenak eskaintzea da, gai-  
nontzeko diferentziak ahaz-  
tuta. Sektak ere desagertze-  
ar

daude, industrializazioaren  
ondorioz, noski.

— Pobrezia, gosea?

— Indian ez dago gose-  
rik, baina pobreak bai.

— Emakumea?

— Emakumearekiko  
errespeto handia dugu.

— Erlijioa?

— Indarrean dago, gure-  
tzat oso garrantzitsua da.  
Bakoitzak bere sinesmena  
dauka, baina oso sakonetik  
bizi da.

— India aurrera aterako  
da?

— Bai. Esate baterako

ordenadoreen munduan, In-  
dia munduko bigarrena da;  
Hindua azkarra da, baina lan  
gehiago egin beharra dauka.  
Kanpotik etor daitekeen la-  
guntza jasotzeko prest gaude  
eta batez ere lanerako siste-  
mak behar ditugula esango  
nuke.

Nire ustez, hinduen ja-  
rreak sistema europarrekin  
nahastea irtenbide baliotsua  
litzateke; hau da: hindu filo-  
sia eta lan europearra. Inge-  
leseki zerbait eskertu beharrik  
badiugu, uste dut hizkuntza  
dela, gaur egun munduan  
zehir ibiltzeko balio digu eta.

— Hindu moduan, zer  
erizten diezu hemengo ohitu-  
rei?

— Beno, nire ustez onak  
dira, baina guk ditugunak  
baino askoz ere materialista-  
goak. Hemen, adineko per-  
tsonekiko ia ez dago errespe-  
torik eta hori ezinbestekoa  
iruditzen zait. Bestalde,  
umeak libreak izatea ondo  
iruditzen zait, baina behar  
bada ez litzateke gaizki  
egongo zerbait gehiago  
kontrolatzea, gaurko umeak  
biharko hiritarrak izango dira  
eta. Hiritar onak lortu behar  
ditugu eta nire ustez hemen,  
alde batetik, umei askatasun  
gehiegi ematen zaie eta bes-  
tetik ez zaie nagusienekiko  
errespetorik irakasten.

— Ze inpresio jaso duzu  
ikusitakoaz?

— Lehen Arrasate eta  
kooperatibismoaz irakurri-  
takoa besterik ez nekien eta  
orain gertutik ikusteko  
aukera izan dut, denbora  
gutxiz baina aukera hori izan  
dut. Horrela gainetik ikusita,  
lehenik jendea aipatuko nuke,  
euskaldunek lagun bezala  
hartu naute eta, jende zabal  
eta langilea aurkitu dut. Es-  
painian, berriz, kalitatea dela  
eta ez dela, europearren  
mailan jartzeko arazoak  
daude.

— **“Elkarlanean ihardunez gero, alemaniar edo  
amerikarrekin konpetitzeko gai izan gaitzke”**

# Zaldibarren diru-arazoak kirolari nagusitu

**Zaldibarko Futbito Txapelketako diru kontuetan zerbait gertatu zela zioten kaleko zurrumurruek, eta gertatu, zerbait gertatzen da, ez bait dago adostasunik akusatu eta akusatzaileen artean. Dena dela, badirudi Zaldibarko Futbito Txapelketara ere, diru-arazoen luzatu dutela atzaparra.**

Mobida, laburrean

**F**ernando Uranga, Bea Alkalde, Igor Altuna eta Xabi Garciak, futbito txapelketako antolatzaileek, pasa den asteartean Monterronen bildutako ehun lagun baino gehiagori jakin arazi zien antolatzaileetariko batek, Joakin Azkoagak, Zaldibarko 835.000 PTA beretzat hartu zituela.

Asteko notizia izan denez, seguruen gaia dagoeneko zabal eta luze eztabaidatua izango zen herriko toki guztietan. Hala ere, laburbilduz eta Monterroneko mahaikideek esandakoaren arabera, gertatua hauxe izango litzaiteke: Lehenik, eta beti Monterronen entzundakoaren arabera, esan behar da Zaldibarko Futbito Txapelketa antolatzeko, oinarritzko diru-iturriak hiru direla: Taldeen izen-ematetik jasotzen dena, Udalak eta AUKEAK lagun-


tza-gisa ematen dutena, eta publizitatetik sartzen dena. Dirudienez, ia zko Txapelketan, Monterroneko mahaikideak taldeen izen-ematetik sortutako diru-sarrerez arduratu ziren, 1.080.000 PTA;

Joakin Azkoaga, berriz, gaintzekoaz, 1.195.000 PTAz. Arazoak, txapelketa bukatu eta gero etorri omen ziren, dirua falta zela konturatzearan. "Berak, dirua hartu eta gastatu egin zuela esan

zigun, besterik ez. Antolakuntzatik kanpo geratzen zela eta Txapelketa berriz hasi aurretik dirua bueltatzeko esan genion, 800.000 PTA inguru, eta hori eginez gero, jendaurrean ez genuela gertatutakoa azalduko. Baiezko erantzuna eman zigun, baina iraila iritsi eta oraindik dirurik bueltatu ez zigunez, joan den asteburuan berriro deitu genion, aukera bera eskainiz. Asteartea da eta ezer ez dakigu berataz, dirua beretzat hartu duela, besterik ez".

Joakinen bertsioa

**A**urrez berarekin harremanetan jartzen saiatu baginen ere, ez genuen lortu, baina ostegun goizean, Joakin Azkoaga Arrasate Press-ekin harremanetan jarri zen, bere bertsioa eman nahian. Normala denez, azken egunetan berari buruz esan direnak entzun eta gero, minduta zegoen. "Iaz Donostiara Errealaren partidua ikustera ez joatea erabaki zenez, 800.000 PTA horiek kontu korrente batean



Monterronen ehun pertsona baino gehiago bildu zituzten Zaldibarko antolatzaileek.

sartuta daude, epe finkoan, aurtengo txapelketan dirua egon dadin. Eta besterik ez, diru hori ez du inork eraman eta gutxiago nik. Diru hori agertuko da, eta antolatzaileek orain arte esandakoak aldatu egin beharko dituzte. Antolatzaileei esannien, aste honetarako dirua hor egongo zela, baina lan arazoengatik ezin izan naiz agertu eta ez naiz ezertaz enteratu ATBn eman zutela esan zidaten arte. Bi urtez kabroi baten bezala lan egin eta gero, herrian ondo gelditu beharrean gaizki geldituko naiz. Klean kartelik ikusi ez nuenez, ez nuen uste bilerririk egongo zenik, horregatik ez neukan bat ere presarik. Nik ez dut ezer lapurtu eta ez daukat burua makurtuta ibili beharrik”.

**Zipristinak**

**E**gia esan, eta diru-kopuruari neutraltasunez begiratzuz gero, 835.000 PTAKo hutsak ez du garrantzia handiegirik. Zaldibarko Futbito Txapelketan horrelako gauza bat gertatzeko, gorago, eta ez kirolean bakarrik, zenbat halako gertatuko ziren eta gainera isilean pasatu, oinezkoak enteratu barik? Auskalo! Baina kasu honek eragindako zurrumurruek zipristinek, jende asko busti dute. Lehenik, antolatzaile-taldea eta Joakin bera, duela urte batzuk txapelketan bertan eta Mondraren baitan antzeko zerbaitek gertatu



Zaldibarren falta den dirua epe finkoan sartuta duela dio Joakin Azkoagak.

zela ziotenak ere, laster zabaldu ziren eta. Argi dago, horrek txapelketari ez diola mesederik egin eta, nahiz eta gauzak argitu, mesfidantza giroa, hor izango dela. Bigarren, Zaldibarren jokatzeko dutenak, izan ere, falta den dirua jende askok jarritakoa da. Gero, Txapelketa lagundu duten merkatariak egongo lirateke, hemendik aurrera eta gauzak nola dauden ikusita, seguruen laguntza eman aurretik, bi aldiz pentsatuko dutenak. Azkenik, Mondra taldea aipatu beharko litzateke, Zaldibar izena daraman diru-kontu batean, Mondraren 25. urteurrena ospatzeko antolatu ziren ekintzei zegokien diru mugimenduak zeuden eta. “Mondraren 25. urteurrene-

ko ospakizunak aurrera eramateko, – zioen Jose Luis Etxeberria, “Porru”k, ospakizunen garaian Mondrako presidente zenak– batzorde berezi bat antolatu genuen. Ospakizunetarako batzordea antolatu eta, Mondrako beste kontuetatik aparte, ekintza zehatz horietarako kontu berri bat irekitzeko erabakia hartu genuen. Joakin Azkoagak laguntzaileen artean zegoen eta nahi izanez gero kontua bere izenean zabaldu zuela adierazi zigun, berak Zaldibarko Txapelketarako bat zabaldu behar zuenez, 25. urteurreneko ekintzak bukatu arte hura erabil genezakeela. Abuztuan, kontu horretan geneukan dirua, 2 milioi inguru, geure beste kontu batetara

pasatu genuen eta hori Oan utzi genuen. Hortik aurrera kontu horrekin zer gertatu den Joakinek jakingo du, guk ez behintzat”.

**Txapelketa aurrera?**

**N**ahaste ugari Zaldibarko Futbito Txapelketak sortu duena, ez bere baitan bakarrik, ondorioz Mondraren diru-egoera ere zurrumurruek plazara atera du eta. Txapelketak aurrera egingo duen edo ez, jakitea, ez da erraza, antolatzaile izan direnak erreta eta hor dagoen saltsa ikusita, inor gutxi ausartuko da sartzera. Dena dela, baikor izan behar, merezi, Zaldibarko Futbito Txapelketak suposatzen duenagatik merezi du eta.

**Berango**



**Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak**

**Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE**



Aurtengo txapelketa aurreko bi urteetako bezain ikusgarria izatea espero behar da.

## Zaldibarren izena emateko osteguna eta ostirala

Maritxu Kajoi bixamonean emango zaio hasiera Zaldibarko Futbol Txapelketari ohi denez. Aurtengo txapelketako izen ematean eta araudian dagoen nobedade garrantzitsuena, parte hartu ahal izateko ordaindu behar den diru-kopurua da: 10.000 PTA taldeko eta 1.000 PTA jokalarari bakoitzak. Antolatzaileek adierazi zuten, aurtengo txapelketarako aseguru berezia kontratatu dute eta horregatik jokalarari bakoitzeko 1.000 PTA eskatu beharra.

Gainontzekoan ez dago berrikuntza gehiegi: jokalari

tzeko gutxienez 16 urte izatea, ekipoko jokalarari guztiak kamiseta berdina janztea, arbitratzeaz taldeak arduratzea eta abixatu barik partidurik ezin aldatu izatea.

Beti bezala partiduek 50 minutuko iraupena izango dute, 25 minutu zati bakoitzak,



eta partiduak hasteko, talde bakoitzean 5 jokalarari behar dira gutxienez.

Zigorrei dagokionez, esan behar behin ez arbitratzearen taldeari bi puntu kenduko zaizkiola eta bi aldiz eginez gero, taldea kanporatua izango dela. Era berean, interesik gabeko arbitroei ere zigorrak ezarriko zaizkie. Kanporatuak izango dira, jokatzerara agertzen ez diren taldeak ere.

Izen emateak datorren ostegun eta ostiralean izango dira, 17an eta 18an, Monterronen eta arratsaldeko 7etatik 8etara.

### Hurrengo partidua

"Igendekoa, Atxabalpen aurten jokatuko dugun lehen partidu ofiziala izango da - zioen Iñaki Zeziagak, Mondrako entrenatzaileak - eta uste dut hasieran urduri samar aterako garela, nahiz eta jokalarari gehienok ondo ezagutu Atxabalpeko zale-tuen izaera. Gainera, kontuan hartu behar da jende berri askoren estreinaldia izango dela, bederatzi jokalarari eta entrenadore biak.



Partidua irabaztea espero dugu. Aste guztian zehar lan handia egin dugu entrenamenduetan, arlo fisikoa, teknikoa eta psikikoa landuz eta joan den igandean egindako akats ugari zuzentzen saiatu gara.

Amurrioren aurka ez genuen oso ondo jokatu, sistema berriaz atera ginen, eta dirudien oraindik ez dugu behar bezala asimilatu. Erandioen aurka, iazko sistemaz irtengo gara eta gauzak ondo badoaz, partidua aurrera joan ahala aldatuko dugu, aurtengo zeregin nahi dugun erakusteko. Arerioa ere kontuan hartzea da eta Erandiori buruz esan behar da iazko denboraldian mailaz igotako taldea dela; guk Amurrioren galdu eta gero, zerbait egitekotan etorriko da, gaizki gaudela pentsatuz".

**FANCY**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Erdiko kale. 79 19 37

**ILEA**

Ferrerias. 79 87 62

UNAI TXAPARRO

PODIUMA

Igeriketan berriz txapeldun izatekotan



Unai Txaparrok hamahiru urte besterik ez ditu eta bizi izateko gogo galanta; izan ere, bere urtebetze egunean, ekainaren 13an, izandako auto-istripuaren ondorioz, heriotza oso gertu izan zuen, hilabetez koman egon eta gero esnatu zen eta.

"Ez nuen ezer egiten, ez hitz egin, ez jan. Eta esnatu nintzenean ez nuen ezer gogoratzen, baina oso pozik nengoen, negar eta dena egin nuen, hain pozik nengoen... Orain errehabilitazioa egiten ari naiz, eta oso gogorra da, indar asko behar da osatzeko. Eskumako ukondoa hamalau zatitan apurtuta daukat eta sorbalda ere zati askotan, ez daukat indarrik beso horretan. Besoko orratzak kendu zizkidatenean izarrak ikusi nituen, anestesia barik; min izugarri egin zidaten! baina ni hortzak estutu eta ixilik". Minak alde batera, Unai sendagile eta erizaintzat eskerrona besterik ez dauka.

"Super ondo portatu dira nirekin". Kirolari gogorra dugu Unai, saskibaloia, futbola, "mundua apur bai ezagutzen delako" atsegin duen mendiko bizikleta eta, batez ere, igeriketa egiten ditu. Igeriketan zor-

tzi urterekin hasi zen, gehienbat bere arreba Soniaren eraginez, eta denbora honetan emaitza harrigarriak lortu ditu, entrenatu barik gainera. "Igeriketa klasikorako entrenamenduak egiten nituen, baina aletadun igeriketa txapelketara joan nintzen eta irabazi egin nuen, aletekin entrenatu barik. Bi urte segidan Estatuko Txapelduna izan naiz, Llore de Mar eta Palmanburutako txapelketak irabazi nituen".

Aurten gauza bera egiteko asmoa zuen Unai, Estatuko Txapeldun titulua hirugarren aldiz irabaztekoa, baina ama eta biak autoarekin izandako istripuak ez zion Ceutako Txapelketara joateko aukerarik eman. Dena dela, Unai ez dago amore ematekotan eta lehen egindakoa errepikatzekotan dabil, laster gainera. "Oso triste geratu nintzen Estatuko Txapelketara ezin izan nintzela joan esan zidatenean, baina datorren urtean irabazi egingo dut".

◆ Everest-eko azken berriak

Felix eta Alberto Iñurrategi eta Jose Ramon Zubizarretak ez dute atsedunik Everest-erako bidean, hona hemen handik iritsitako azken berriak:

"Everest-eko behe kanpamendutik, irailak 1.

Namaste Euskadi!!

Gaur irailak 1, lehenengoko kanpamendua montatu dugu. Izotz kaskada lau ordutako igoera baten ondoren iritsi gara, 6.100 m.

Eguraldia ezin hobea dugu, beraz, horrela jarraitzen badu laister batean 2. kanpamendua ere montatu ahal izango dugu.

Atzo ireki zuten izotz kaskada, baina gu ospakizunetan egondu ginen, espedizioaren bedeinkapena izan bait genuen.

Besterik gabe Agur bero bat eta laister arte!"

◆ Bi saskibaloia partidu

Saskibaloia denboraldiari oraindik ez zaio hasierarik eman, baina Arrasate Saskibaloia taldeko ekipoak, aurrez gogor prestatzen ari dira. Larunbata arratsaldean, emakumezko eta gizonezko senior taldeek Arrasateko ikusleek aurrean egingo dute aurkezpena Musakolan eta horretarako bi partidu interesgarri: alde batetik, 4.30etan emakumezko Arrasate Saskibaloia lehen mailako Gasteiz taldearen aurka; 6etan, berriz, gizonezkoen Arrasate Saskibaloia lehen mailako Loiola Easoren aurka.

◆ Mondra - Erandio Atxabalpen

Joan den astean ligari hasiera emateko balio zuen partiduan Amurrion 2 eta 0 galdu ondoren, Mondrak igandean Atxabalpen jokatu du. Partiduari Setan emango zaio hasiera eta arerioa Erandio taldea, joan den astean etxean Urolarekin berdindu zuena.



GRETEL

Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5  
Tfnoa: 77 00 81  
ARRASATE

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

# Hilaren 20an Besaidera

**A**urten ere, Udaz-  
kenerako sarrera  
guztietan egin  
izan den legez  
Besaideko eguna  
ospatuko dugu Euskal He-  
rriko mendizaleok.

Zita, irailaren 20an izan-  
go da, domekan, eta goizean  
goizetik ekingo dio txalapar-  
tak ordurako mendian ari  
diren guztiei ongo etorria  
ematen.

Txalapartaren ongi eto-  
rriaren ondoren, goizeko  
11etan meza ospatuko da  
puntan, punta puntako koro  
eta guzti. Esan behar oho-  
rezko aureskua ere dantza-  
tuko dela.

Meza ostean, berriz, aur-  
ten ere dantza ikuskizuna  
izango dugu Besaiden. Iaz  
legez, Elorrio, Amurrio eta  
Arrasateko dantza taldeek  
beraien dantza ederrekin  
alaiturik.

Horretaz gain, jende  
ugari, mendibizikleta, para-  
pente-aize egokiena badute  
eta bestelako kirolzale ikusi



Aspalditxoan kotxe larregi ikusi ahal izan dugu Besaide inguruan.

ahal izango ditugu. Dena den,  
lerro hauetatik alto bat bota  
gura genieke egun horretan  
kotxez igo gura dutenei eta  
oinez joan daitezen animatu.

Egun honen inguruan eta  
Besaide protagonista dela,  
Arrasaten Irailaren 14tik  
27ra, Arrasate erakustokian  
argazki erakusketa izango da

zabalik Besaideren eta bere  
inguruaren eboluzioa, obrak eta  
zehaztasun guztiak ezagutu  
ahal izateko. Animo eta par-  
te hartu!

HANKAMOTZ



**IRAKASLE ESKOLA**  
Eskoriatza  
Gipuzkoa

Irakasle Eskola honek zera jakinarazten du:  
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.

**ESPEZIALITATEAK**

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

**INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA**

Tfnoa: (943) 79 04 40

Ordutegia: 9-13

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

CARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

**ARRASATE**  
PRESS



**77 05 65**



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95  
ARRASATE

## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

# Jubilatuen eskulanean erakusketa Monterronen

**E**gun hauetan eta datorren igande arte, jubilatuek eginiko eskulanean erakusketa zabalik dago Monterronen. Urtean zehar izaten den ikastaroan eginiko lanak dira ikusgai daudenak eta era guztietakoak dira: tapizak, izpiluekin eginiko lanak, gantxilozkoak, kua-droak...


Arrasateko auzo bakoitzeko talde bat egoten da ikasturte bakoitzean eta ikastoaren barruan dauden espezialitate guztietatik bakoitzak gehien gustatzen zaiona aukeratzen du. Talde bakoitzeko ikasle kopurua desberdina da: Musakolan 16, Erguinen 12, Abaroan 8 eta Santa Marinaran 12. Hala ere, ikastaro hauetan parte hartzen duten guztiak ez dira egoitzetakoak, kanpotik ere etortzen dira ikasle batzuk. "Askok euren lanak etxera eramaten dituzte eta beste kasu batzutan ikastaroetan egon ez direnek ere ekartzen



Teknika desberdinetan eginkako obrak dira ikusgai Monterronen

dituzte euren lanak", kontatzen digu Elena Arregik, Jubilatuen Animatzaileak.

Aurtengoa laugarren erakusketa da eta iaz Donostian izan zen Gipuzkoako Jubilatuen erakusketan ere hartu zuten parte.



## San Frantzisko Xabier Ikastolak **MANTENU ARDURADUN BAT** behar du

Lanpostua: Ikastolako mantenu-lanak  
Iraupena: 12 hilabete  
Ordutegia: 6 ordutako laneguna  
Soldata: Zehazteko

Izenemate epea: **IRAILAK 18**  
Curriculum ondorengo helbidera bidali:

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA. Gazteluondo, 4. (114 Postakutxa) 20.500 ARRASATE

### BALDINTZAK

- Euskaraz jakitea
- Gidari karneta izatea
- Hainbat mantenu lanetan ezagutza izatea:
  - Iturgintza
  - Pintoretza
  - Galdaragintza
  - Zurgintza





◆ **Aurten pastoralik ez Arrasaten**

Nahiz eta Udalak, AEDk eta Maritxu Kajoik Batzordeak ahaleginak egin, aurten ez da posible izango pastoralik ikustea Monterronen. Zuberoko Santa Grazi herriak eskaini du aurten Santa Kruz Pastoral, baina behin bakarrik antzetzuko da hegoaldean, bihar larunbata arratsaldeko 5etatik aurrera Ordizian. Arrasaten, Montebernán, Hire liburudenda edo AED elkarteak daude salgai sarrerak.

◆ **Pintura erakusketa**

Elorrioko Lankide Arrazkiaren Erakusketa Artoan olio erakusketa izango da datorren irailaren 20 arte. Kontxita Zarraoa arrasatearra eta Juan Mari Fernandez de Arroyabe dira erakusleak eta, paisaiak dira nagusi. Horietan zuhaitzak, ura, baserria, elurra... dira gehien erabiltzen diren gaiak. Erakusketa bisitatzeko, goizez 10etatik 14ra eta arratsaldean 6etatik 9etara.

◆ **"Don Jose Mari Arizmendiari VII." Lehiaketa**

Arexabaletako Gizabidea fundazioak, Don Jose Mari Arizmendiari VII. Lehiaketa antolatu du. Bertan, irakaskuntza ertainetan Euskal Herriko Zentroetan ikasten dauden ikasleek parte hartu ahal izango dute. Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

# Juan Luis Goikolea

## Maritxu Kajoiko kartela bukatuta

**Azken urte hauetako Maritxu Kajoiko kartelen bi egileetariko bat da. Aurten goa bukatua dutenez, gai hori aprobetxatu eta bere pinturaren ezaugarriak ezagutu nahi izan ditugu.**


— **Zergatik aukeratu zenuen pintura?**

— 14 urterekin hasi nintzen oleoan eta gaur arte. Beste lagun batekin estudio txiki bat montatzeko aukera izan nuenean, serioago hasi nintzen. Baina nahiz eta estudioa bi artean izan, bakoitzak bere estiloa landuz, bere koadroak egiten ditugu.

— **Zeintzuk dira erabiltzen dituzun gaiak?**

— Ez dut gai finkorik. Koadroa egiten hasten naizenean, ez dut jakiten zer izango den, tela bat mantxatzen hasten naiz eta egiten joan ahala, forma eta koloreak osatzen ditut. Horregatik, ez dut behar izaten modelorik ezta argazkirik ere aurrean, eta paisaiak egiten ditudanetan bakarrik irteten naiz kanpora. Bestalde, koloreari dagokionez, segun nolako garaia bizi dudana, kolore ilunak edo biziak erabiltzen ditut.

— **Koloreak inportantzia handia du?**



— Bai, noski, baina ez osoa. Dibujoak ere badu bere inportantzia, espresatzeko modua da eta nahiz eta kolorerik ez izan badu bere zentzua. Baina, lehen planoak edo beste plano bereziak bilatzeko koloreak berebiziko garrantzia du.

— **Kuadro asko saltzen da?**

— Ez, oso gutxi. Galeria asko itxi egin dira eta normala da, horretatik bizi izateko oso ona izan

**"Nik niretzat egiten ditut koadroak. Ez dute mezu zehatzik"**

behar da eta. Gainera, saltzen dena pintura tradizionalena da, betiko paisaiak, enkargukoak eta abar.

— **Zuretzat zer da pintatzea?**

— Askok esaten dute hobya dela baina nik behintzat hori baino gehiago kontsideratzen dut. Baina gauzak dauden mondan egonda, dagoenarekin konformatu beharko naiz. Nik niretzat egiten ditut koadroak eta ikusleak beharbada ez du ikusten nik egin dudana, baina, nik gustora egiten ditudanez, ez dut mezu bat bidaltzen.

— **Maritxu Kajoiko kartelari buruz, ze prozesu jarraitzen duzue egiteko?**

— Beno, hasteko esan behar da Iñigo eta bion artean egiten dugula. Ematen du oso zaila dela baina urte askoan ibili gara horrela eta gaia erabaki ondoren, bakoitzak kartelaren zati desberdinak egiten ditu. Gainera urte bakoitzean gai desberdina aukeratzen dugu. Joan zen urtean Errusia izan bazen, aurten Olinpiaden ingurukoa da. Horretaz gain, nahiko berdintsuak izaten dira kartelak, nahiz eta desberdina egin nahi, oso zaila da eta.



# ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

Aste gazte

"Intsumisioak euskal herrian inon baino indar gehiago dauka. Nafarroan gutzira 400 gara eta hori nola edo hala moztu nahi dute. Nire ustez, esperimentu bat egiten ari dira, epaiketa masiboak eginez gero zer gertatzen den ikusteko"

Patxi Leone (Nafarroako intsumisioa).

Bekak

• 92-93 ikasturtean Unibertsitate mailako ikasketak burutzeko beka. Epea: Urriak 15.

• Laguntzaile beka: Unibertsitate mailako ikasketetako azken bi urteak egiten ari diren ikasleei zuzenduak. Epea: irailak 30.

• 93-94 ikasturtean Kazetaritza Ikasketak Estatu Batuetan sakontzeko beka. Bidai gastuak eta 132.000 PTA hileko. Epea: urriak 15.



Ikastaroak

• Zaldian ibiltzen ikasteko ikastaroak Urkulun. Txandak: goizez eta arratsalde. Irailaren 14etik 25era, astelehenetik ostiralera. Matrikula: 5.000 PTA.

• Piraguismo ikastaroak Urkulun. Txandak: goizez eta arratsalde, irailaren 14tik 25era. Matrikula 2.000 PTA.

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak

• Gasteizko "Acción 21" eskolan begirale edo zuzendari tituluak lortzeko ikastaroetarako matrikula epea zabalik dago irailaren 24era arte.

Euskal Herriko Unibertsitatea

• 1992-94 biurtekoan

Doktorego-Ikasketak burutzeko aurreinskripzioa egiteko epea irailaren 30ean amaituko da.

Lehiaketak

• Bergarako aire zabaleko XIX. Pintura Lehiaketa. Irailaren 13an, igandea. Gaia: Hirigunea. Teknika libre. Sariak: 75.000, 40.000, 30.000, 20.000 PTAko lau sari eta trofeoak.

• "Antonio Camuñas" Pintura Lehiaketa. Sari bakarra: 1.500.000 PTA. Epea: Irailak 20.

• "San Juan de la Cruz" III. Poesia Lehiaketa. Gaztelaraz. Gai librean. Lanek, gutxienez 600 lerrotakoak izan behar dute. Sari bakarra: 500.000 PTA eta lanaren argitalpena. Epea: Irailak 23.

• "Eusko Trenbideak-X.

urteurrena" Argazki lehiaketa. Gaia: Eusko trenbideak zentzu zabalean (Bidaiariak, geltokiak, zubiak...). Zuri beltzean edo koloretan. Partehartzaile bakoizak hiru argazki aurkeztu behar ditu. Sariak: 150.000, 75.000 eta plakak, eta 10.000 PTAko 5 sari. Epea: Irailak 25.

• "Passport Scotch" Argazki Lehiaketa. Gaia: gazteen bizimodua, ohiturak eta kezkak. Sariak: bidaia bat (munduari itzulia) eta argazki-materiala (ekipo profesionalak). Epea: Irailak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

MUSAKOLA  
OSTATUA

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

IZAGIRRE  
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

ARRASATE  
PRESS



77 05 65

ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

## ETXEBIZITZAK

- Urte baterako pisua alokatu nahi dugu. Dei egin 6etatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasturterako lekuri baldin baduzu, dei eguerdian 79 97 69 tfnora.
- Irailean Ezkaraien etxebizitza alokatzeko dago. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 31 56.
- Deustu inguruan pisu baten lekua behar dut. Tfnoa: 79 34 58. Aitor.
- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23.
- Etxebizitza salgai San Andresen. Foruen Plaza, 3 5 Ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- Donostian pisua alokagai ikasleentzat. Alto de Rondon. Ikasturtean bakarrik. Tfnoa: 79 43 56. Itxaro.

## LANA

- Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak. Tfnoa: 77 13 95.
- Andre euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 37 68.
- Ekonomiako klase partikularrak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.
- Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tfnoa: 72 39 73.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHoko klase partikularrak irailan. Tfnoa: 79 34 58.

- Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest. Uda osoan herrian egongo naiz. Tfnoa: 79 98 30.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska bat behar da. Euskaraz badaki, hobeto. Tfnoa: 79 89 32.
- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- Neska edo emakume euskalduna behar da Gasteizen ume bat zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 10 44.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Dei egin 79 27 37 tfnoara.
- Lorazaintzaz dakien norbait behar da lorategiak garbitu eta zaintzeko. Lan ordutatik kanpo izan daiteke eta hilean 15.000 PTA ordainduko litzaizkioke. Dei egin 79 44 37 tfnora goizeko 10etatik 1.30etara eta Amaiaz galdetu.
- Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsalde 79 72 92 tfnora.
- Umeentzako klase partikularrak ematen ditut. Edozein gai. Tfnoa: 79 31 48.
- 46 urteko emakume euskalduna etxeak garbitu eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 38 01.
- Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Personal espezializatua. Dei egin arratsalde 79 93 03.
- OHoko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 27 37.
- Neska prest EGBko klase partikularrak emateko. Dei egin 79 68 18 tfnora.
- Ingelesa ikasi nahi baduzu, hemen duzu aukera. Talde txikiak. Tfnoa: 77 05 77.

## SALEROSKETAK

- Razesa markako karreterako txirrindua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.
- 9 hilabeteko bideo-joku kontsola (Siega Master System II) salgai. Egoera ezin hobean. Kontsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (astebukaeratan).
- Bideo kontsola (Jamiko) + 150 jokuko kaseta + 4 jokuko bi kasette + bi kontrol mando = 15.000 PTA. Dei egin Tetatik aurrera 79 41 91.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.
- la berria dagoen akordeoi beltza salgai. Tfnoa: 79 80 91 (Gauetan).

## DENETARIK

- Zorionak Nekane, 30 urte ez dira egunero egiten, baina zuk bai estiloa urteak betetzerakoan. Zure laneko koadrilak.
- Jon eta M<sup>a</sup> Angeles, ez dizuegu barkatuko despedidako afaritik egarri iritea. Hala ere, ondo pasatu Mejicon.
- Katu gorritxo bat galdu da abuztuan San Andresen, Foruen Plaza inguruan. Zerbait jakinez gero, abisatu: Foruen Plaza, 2 -3. esk. edo dei egin 11 84 21 tfnora. Danel.
- ASA eta Besaide taldeko txirrindulariek abenduan indarrak neurtuko dituzte jokatzan dena ikusita gero, eta noski, kontrakuak bere burua azaltzen duenean.

## ARRASATEN HILDAKOAK

Luisa Jauregi Pagoaga,  
irailaren 2an. 83 urte.

Florencia Arranz Lopez,  
irailaren 5ean. 91 urte.

Carmen Rivas Vilas,  
irailaren 5ean. 81 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Joseba Barandiaran

### Ilea ileapaindegikoa



- **Bezero gazte ala helduak?** Biak dira beharrezko.
- **Lotoa ala kinielak?** Bat ere ez, loterian bakarrik jokatzekoa dut.
- **Ile beltza ala ilegorria?** Segun norentzat, biak.
- **Errealala ala Athletic?** Errealala.
- **Aldizkari bat?** "Motociclismo" izeneko.
- **Ileapaindegirako argi mota bat?** Beroa edo epela deitzen dena, hau da arrosa koloretakoa.
- **Modako ile mozketa bat?** Melena motz motza.
- **Gehien gustatzen zaizun izena?** Nirea, Joseba.
- **Aldatzekotan, ze lanbide aukeratuko zenuke?** Artista.
- **Irla batera eramango zenituzkeen hiru gauza?** Motorra eta bertan denbora pasatzeko gauzak, eskuz egin daitezkeenak.
- **Zeri aterako zenioke argazki bat?** Atentzioa deitzen duen edozer edo edonori.
- **Azken oporretan non egon zara?** Grezia eta Turkian.
- **Ezkontzak gustokoak dituzu?** Ez, normalean ez.
- **Arrasaten erosten duzu erropa?** Gauza batzuk bai, beste batzuk kanpoan.
- **Irakurri duzun azken liburua?** "Vivir en la luz" izeneko.
- **Zerk ematen dizu lotsa?** Lapurtu edo norbait hiltzeak.
- **Urteko hilabete onena?** Abuztua.
- **Ze egunetan egiten da lan gehien?** Denetan berdin.
- **Animalia bat?** Lehoia.
- **Zezenak gustatzen?** Ez.
- **Laka ala gomina?** Segun zertarako, biak.
- **Bota kanperak gustatzen?** Bai.
- **Erregimenik jarraitzen duzu?** Ez, ez dut horren premiarik.
- **Txalaparta ala txistuaren soinua?** Biak gustatzen zaizkit.

# Bertsotan

## Garraiolarien greba

1

"Garraiolari gehienek greba omen dute gogortuko" kamioi erretze ta pintxazoak dirade horren lekuko ta nahi dutena lortu artean gogor dute jarraituko Borrel-ek aldiz negoziazioei azkar egin die uko gaur bizi duten egoerakin ez al zaigu jabetuko? Lau polizia kalean jarriz ez du ezer konponduko.

2

Gerba hau jada urte askotan izana dago gurekin lehengo urtean ez zuten lortu ta aurten zergatik berdin? Lantegi askok pieza gabezik ezingo du lanik egin ta arazorik orain artean ez zen janariarekin gauzak ordea txartzten badira zer gerta leiken nork jakin? Beraz konpontzen saia gaitezen ezer gertatu ez dedin.

AINHUA AGIRREAZALDEGI



## Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak  
Opariak  
Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

## ARRASATE PRESS



77 05 65



Zerrajerako jubilatuek Arantzazuko erromesaldian.

oiko argazkian Zerrajerako jubilatuek talde batek Arantzazura egin zuen erromesaldia ageri da. Arantzazura bertara joatea ez ezik, Arrasateko San Frantziskon ere ospatzen zen garai baten Ama Birjinaren bederatziturrena. Orduan Fray Rufino zen sakristau eta

**G**


16 monagilo zituen. Erretratu honetan Calleja anaiak, Ino eta Koldo, iladaren hasieran, eta euren atzetik, Goñi, Telleria eta beste batzuk.

Arantzazuko Andre Mariaren agerpenari buruz, berriz, bertso zahar hauek aurkitu ditugu:



San Frantziskon 16 monagilo zeudenekoa.

- |   |  |  |   |
|---|--|--|---|
| 1) Arantzazun Maria agertu zanian Oñati ta Mondragoe zeuzkan bere aldian. | 2) Inork baino lehenago geure gurasoak Arantzazura zituen zuzendu pausuak. | 3) Arantzak ebakita harkaitzak apurtu auzolan gogorrean bidea zabaldu. | 4) Oñati ta Mondragoe Kofradia jarririk Birjinari jaieraz egin zuten pozik. |
|---|--|--|---|




**ERREKIKO**

**Betiko ERREKIKOAK zuekin berriro**

Egizu erreserba Maritxu Kajoirako!

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51 BERGARA




**UXARTE**

**Kafetegia, gozotegia Gaez irekita!!**

**JO TA KE!!**

Bañez doktorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

# Gurutzegrama




### Horizontalak

1. +6B=Gazteizko margolariaren kalea
6. Alde hemendik
8. Ziztu
10. Iridioa
11. Amai
12. Asteguna
15. Berba egin eta jateko zulo
16. Burutsu
17. Lapurdiko Udala
19. Jatorri atzizkia
20. Ametitu

### Bertikalak

1. Barre eragiten duen artista
2. Isaaken aita
3. Bat eta bat
4. Berotzeko leku
5. (Ald.) Arin
6. Ikus 1 horizontala
7. Eta
9. Kulunkatu
13. Zein tokitara
14. Antz
18. Ez eme



JUAN BAUTISTA AGORRIA

## Lagundu HIES-aren aurkako burrukan! Egin zaitez HIES EKIMENeko bazkide!

Izen-abizenak .....  
 Helbidea .....  
 Herria ..... Herraldea ..... Telefonoa .....

BANKURAKO AGINDUA

..... Banketxeko zuzendari Jn.  
 Helbidea .....  
 Agentziaren zkia ..... Tfnoa .....  
 .....zkidun kontuaren kargura **hileroko / hiru hileroko / seihileroko / urteroko\*** ordainagiriak zorpetzea eskatzen dizut, HIES EKIMENak aukeztuak, .....PTAko balioak, bestelako agindurik ez den artean.  
 Eguna ..... Sinadura

\*Ezabatu egoki ez dena. Urtean 2.000 pezeta gutxienez.

BIDALI IRAGARKI HAU HELBIDE HONETARA:

**HIES EKIMENA**

Arrasate Pasealekua, 3 behea. 79 26 99 telefonoa (erantzungailuaz).20.500 ARRASATE

Gure aldizkaria jasoko duzue etxean (urtean bi ale gutxienez) eta baita informazioa eta opari txiki bat ere.



## Larrugorritan

Asteartea gaueko 21.30etan

Aste honetako gaia ehiza izango da eta horretarako Unai, Betirtze eta Aitorrek ehiztariak eta horren kontra dauden beste batzuk ekarriko dituzte programara. Saio honen bidez bakoitzaren eritziak ezagutzeko aukera izango dugu eta baita ehiztarien arrazoiak ere.

### Larrugorritan

Ehiztariak eta kontrakoak programan

Asteartean  
9.30etan

### Mondra Sport

Futbola eta beste kirol batzuetako emaitzak.

Astelehena  
9.30etan

### ATBketan

Anne Igartiburuk aurkeztuko duen lehiaketan bi talde izango dira.

Osteguna  
9.30etan

# Telebegi

## Esperientziak Larrugorritan

Gaiak, denbora, dekoratua ... ustez, guztiak ziren gonbidatuak baino arazo larriagoak. Baina konturatu gara ezetz. Gonbidatuak zeuden ranking-aren lehenengo postuan.

Hasteko gonbidatuak baietza emateko erreguka ibili behar. Eta gauza bat baietza ematea da, eta beste gauza bat, grabaketa orduan estudioan agertzea. Gu berez urduri egoten baginen, batez ere hasieran, gonbidatuak huts egiten zigutela ikustean ba are urduiago; eta beste erremediorik ez baldin bazegoen libre zegoen edozein harrapatzen genuen (lagunak, ezagunak eta baita taldekoren bat ere).

Guzti honengatik batzutan gonbidatuak aukeratzeko haurranga jotzen genuen. Hauekin baietza ziurtatua genuen. Halere beti esan izan da haur eta animaliekin lan egitea dela gauzarik zailena, eta egia borobila. Baina gai batzutarako haurrak egokiagoak zirela onartu behar dugu, eta gainera kutsu barregarri bat ematen ziotela elkarriketari.

Edozein modutan ere, mila esker gonbidatu guztioi!

BETIRTZE ETA UNAI

## Programazioa

14

### ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Informazio eta irudiz betetako albistegia.

9.30etan **Mondra Sport**. Gerardo eta Mikel izango dira aurkezleak.

10etan **Asteko zinea**: Mad Max.

9.30etan Larrugorritan: Ehiza.

Ehiztariak eta kontrakoak euren eritziak emango dituzte.

10etan **Asteko zinea**: Mad Max.

17

### OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Egunez egun bildutako albisteak zure esku.

9.30etan **ATBketan**. Annek aurkezturik, bi talde izango dira lehian.

10etan **Asteko zinea**: Mad Max.

16

### ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Arrasaten izan diren azken orduko albisteak ezagutzeko.

9.30etan **Asteko zinea**: Mad Max.

18

### OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan **Berriak**. Astebukaran dagoen berri eta egunean zehar izan diren berri.

9.30etan **Asteko zinea**: Mad Max.

15

### ASTEARTEA


8,8.30 eta 9etan **Berriak**. ATBko ekipoak osaturiko informatiboa.

• OLDARRA •

baleta

# NAFARROA

Zuzendaria: KOLDO ZABALA



Babesleak:



Arrasateko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**Monterron  
Parkean**

**IRAILAK 18, OSTIRALA  
GAUEKO 10.30 ETAN**

▸ Sarrera: 800 PTA  
Gazte-Txartelarekin: 500 PTA